

## BEZEROAREKIKO HARREMANAK:

Gure enpresak hainbat enpresekin izango ditu harremanak. Alde batetik, bezero eta gure arteko harreman zuzena bereiztuko dugu. Hau Irun eta Frantziako mugan gertatuko da, gure enpresak etorkinei zerbitzuak ematerako garaian. Bestetik, hipermerkatuen eta gure arteko harremana izango da; Goierriko bost hipermerkatuekin hitzartu ditugun laguntza eskaintza eta publizitatea izango da. Guri elikagai produktuen laguntza emango digute eta guk trukean publizitatea egingo diegu.

Horrez gain, hainbat asesoriekin ere izango dugu harremana, hau laguntza legala emateko izango baita. Laguntza legala emango diegu kalean dauden etorkinei, horrela papelik gabe dauden atzerritarrei hemen bertan bizitzeko behar dituzten papelak emango dizkiegu.

Bestalde, Beasaingo eta Irungo udalekin ere harreman zuzena izango dugu. Hauei lokalerako laguntza eskatuko diegu.

Baita ere, sukaldeko tresnen enpresekin eta garraio zerbitzuak egiten dituzten enpresei ere laguntza eskatuko diegu; hau Irunera eramateko eta sukalderako tresnetan laguntza emateko izango da.

Horrela izanez gero, laguntza horiek jasota merkeagoa eta ekoizpen kostua txikiagoa izango litzateke.